

Autoretza: Gabriel Rufián, "El Periódico"

Iturri originala: <https://goo.gl/1cEwHG>

Argitaratze data: 2018ko otsailak 4

## **"Erraldoia", Junqueras espetxean bisitatu ostean Rufiánek idatzitako artikulua**

**"Burua jiratu, eta Junqueras da. 100 egun igarota, kosta egiten da hura ezagutzea. Hunkigarria da."**

Biribilgune bat, 600 km-ren ondoren. "Un golpe de Estado nunca sale gratis", asfaltoan presaka idatzita. Gorri-horia seinalean, gorri-horia bide bazterrean. Hiru ordu, lurra eta ezereza besterik ez inguruan. Alanbrea, garita, dorrea eta porlana muino batean. Urrutitik, hegazkinik gabeko aireportua dirudi. Ronny eta Vievo, beti 10-12-17. Eva, Aranchy eta Víctor. Inoiz gehiago ez. 2012-09-0, Karabanchel badoa. Pollo eta Chulato, nire bizitza zarete. Chicho, Antonio, Ramiro, gelditu egiten dira. Camaroti eta Chulo, itzuliko gara, horma gorri batean. Estremerako espetxea. Madrilgo zazpigarren espetxea.

Azkenengo aldian, sei orduko atzerapenarekin atera ziren, gaua izan zedin eta hainbeste jende ez ikusteko **Mundò, Rull, Romeva eta Turrullen** zain. Pasabidean, 20 kartel mugikorrek debekatuz. Ilaran amak, aitak, emazteak eta seme-alabak, esperoan. Mantak eta arropa gordetzen duten zakuak. NANA, argazkia eta hatz-aztarna. Funtzionarioaren efikazia apatikoa.

Hotza dago. Alde egin arte desagertzen ez den hotza. Manpara opakoak, jenderik gabeko kamerei begira dagoen jendea atzean. Kontrola eta eskanerra. Jakarrik gabe, gerrikorik gabe, metalik gabe, boligraforik gabe, paperik gabe. Plastikozko eskularruak dituzten funtzionarioek poltsikoak miatzen. Zurezko aulkiak ilaran. Orain anbulatorio bat dirudi. Lurrera begira dagoen jendea, patiora begira dagoena, sabaira begira. "España no se rompe", ezagutzen ez gaituen mutiko baten elastikoan idatzita. Burdina herdoilduzko eta kristalezko pasabide bat. Harr-itxintzarrezko patioa, alanbrez eta distiraren distiraz berria dirudien txarrantxaz hesitua. Txoririk bada, ez dira ikusten. Beste gela Bat eta beste ate bat. Aurrean, kabinak dituen korridore bat.

Megafoniatik, ahots batek abizenak eta kabinak lotzen ditu. "**Junqueras la 2**". Mendiko parka beltz batez jantzita, silueta bat barrez atean, hizketan norbaitekin. Metro karratu bat metal kristaldu, eta plastikozko hiru aulki. Lau gara. Txandaka jarriko gara mikrora hurbiltzeko. **Siluetak jira egin, eta Junqueras da. 100 egun geroago, kosta egiten da ezagutzea. Une hunkigarria.** Sei ordu pasa ditut autoz nire burua konbentzitzen

Autoretza: Gabriel Rufián, "El Periódico"

Iturri originala: <https://goo.gl/1cEwHG>

Argitaratze data: 2018ko otsailak 4

animoak eta aurpegi ona nire kontu direla, eta segundo batean jabetu naiz ez dela posible izango. Argalago dago, beltzaranago, indartsuago. Irribarrez dago; eta ez du irribarrea galduko 40 minutuetan.

Eskuak kristal zikinean jarri ditugu. Gogoan dauzkat elkarri eman genizkion besarkadak. politika, kirola, irakurgaiak, gutunak eta 20 aldiz "zaindu familia". Haren argia hain da bizia, iluntasuna bera desagertzen baita. Zazpi espetxetan ere kabitzen ez **den erraldoi** bat. 100 egun seme-alabarik gabe, eta ezta hitz txar bat ere inoren lepotik. Historia bizia.

Badakizu bukatzen ari dela jada ez duzulako haren ahotsa entzuten. Moztu egin dute. Eskuak kristal zikinean. Musuak eta besarkadak airean. Bagoaz. Ate ondoan, burua jiratu eta batera itxi ditugu ukabilak. Begiak gorrituta. Jada ezer ez zaizu hain itsusia iruditzen.

Barruan hotzago dago, kanpoan baino. Batzuek hainbeste merezi dute, herri oso bat merezi baitute. Hobe nukkeen gauza batzuk inoiz idatzi ez banitu. Gaurko garaituak **Estremerara** joatea, eta biharko Akilesen moduan itzul daitezela.